

barriek

HURRENGO ERAKUSKETA

Mar de Dios

2026ko apirilak 14 – ekainak 21

2026ko otsailak 10 – apirilak 12

PERFORMANCE

Otsailak 18 · 18:00

[Barne] lurra

Asfáltica

Soinu-aktibazioa

Ra Asensi

ORDUTEGIA

Asteartetik larunbatera 11:00 - 15:00 / 16:00 - 20:00

Igande eta jai egunetan 11:00 - 15:00

Astelehenetan itxita

Iparragirre 21

48009 Bilbao

T. +34 94 406 85 32

salarekalde.bizkaia.eus

salarekalde@bizkaia.eus

@rekaldearetoa

EUSKARA

Ra Asensi

Ra Asensik (Bilbo, 1989) artefaktuak sortzen ditu gorputzaren muga materialak dibertsifikatzeko. Ekoizpen honek zeramikaren eta bere prozesuen, ekintza-artearen, argazkigintzaren (argi-aztarna gisa) eta eskulturaren eragina du. Tirabirak sortzen ditu gorputzen, teknologien eta naturen arteko oraingo eta balizko harremanetan. Bere praktikak beka ugari eta ikerketetarako laguntzak jaso ditu. Azken aldian, soinua, ukimena eta materialtasuna konektatzea du ardatz ikerketetan.

Bere bakarkako erakusketen artean, hauek nabarmendu behar dira: *Objeto [In]quieto* BilbaoArte Fundazioan, *Inadaptada Resistencia* Montehermoso Kulturunean (Vitoria-Gasteiz), *Tentare* Mapamundistas-en, *asteroidea* RKE - Getxoarten eta *La lava que llevas contigo* TACAn (Palma). Bere obrak, esku-hartzeak eta ekintzak hainbat inguruetan izaten dira: V2-Unstable, 2025 (Rotterdam), Fran Reus Galeria, 2024 (Palma), Art House Foundation Studio D, 2024 (Londres), 019-Ghent, 2024 (Gante); Tabakalera, 2024 (Donostia), Colonia Industrial Cal Rosal, 2024 (Berga, Katalunia); Merkurio Jaialdia/Cervantes Institutua, 2023 (Palermo); ECOS, 2023 (Rekalde Aretoa); BAP, 2022 (Guggenheim Bilbao Museoa), besteak beste.

Rekalde Aretoak RA ASENSIren *[Barne] Iurra* erakusketa aurkezten du, barriek programa barruan. Programa horrek ikusgai jartzen du Bizkaiko Foru Aldundiaren arte plastiko eta ikusmen-artearen bekez gozatu duten artisten aukeraketa bat.

Zauri irekia miazkatu muina aurkitzeko

Ingurunerik gabeko artea hutsik dagoen oihartzun instituzional bat da

Gizakiok ingurunearekin eta gizatiarra ez denarekin ditugun harremanen emaitza gara. Lan egiteko eta lankidetzan aritzeko moduak txertatu behar ditugu etsi-etsian. Ra Asensik horretaz duen ikuspegia poetikoa, boteretsua, irekia eta konplexurik gabea da. Ikusteko eremua zabaltzen du, ikuskera hedatu, eta ikuspegi erabat inklusiboa izateko. Konfrontazioko ikuspegia du, baina ondorioei aurre egiteko lekua ere uzten du.

Chico Mendes ekologistak adierazi zuen *klase-borrokarik gabeko ekologismoa lorezaintza baizik ez dela*, eta desberdintasun soziala eta ekonomikoa sartu zituen ingurumenaren babesari buruzko elkarrizketan, aurre egin beharreko lanketa gisa. Estetika bera bakarrik erresistentzia ez dela gogorarazteko. Faktore sozioekonomiko zabalagoak eta lurretik (puntu hilgarri bateraino) bereizten gaituzten diskriminazioak ulertu behar ditugula gogorarazteko.

Raren praktikari dagokionez, esango nuke *ingurumenik gabeko artea hutsik dagoen oihartzun instituzional bat besterik ez dela*. Sorkuntza bat bera ere ez da neutrala; eta sortzen, zizelkatzen, margotzen eta eraikitzen dituzten eskuetatik harago doazen ikuspegiak txertatzen ez baditugu, desparekotasunean oinarrituko da ezinbestez. Arteak baztertzaila ahazten duenean, objektu bihurtzen da, ez da gehiago praktika bat. Raren praktikaz ezin dugu sekula horrelakorik esan.

Aurkezten duen horretan, hasieratik jotzen du azakeria eta osatugabetasunaren oihartzun instituzional hori sortzetik harago. Zauri irekiei begira, miazkatzen. Bultzada bat dago, sakontzeko, eta kontu pertsonalak eta azpiko istorioak alde batera ez uzteko. Ondoriozko ikerketa diziplinartekoa, pertsonala, historikoa eta geruza askokoa da. Ikusten dudanez, Rak uhinei, aldaketei eta arrastoei begiratzen die. Hurbil, bere arbasoengandik gertu, lurreko arrakaletan, tokiko komunitateetan ezkutatutako istorioen artean. Zauri irekiak aurkitzen ditu elkarrizketetan, artxiboetan idatzitako esaldi kriptikoetan. Ikuspegi horrek hunkitzen nau elkarrizketan eta kolaboratzaile gisa.

Estraktibismoaren eta desparekotasunaren istorioetan sakontzen du, muina aurkitzeko. Honela baizik ezin dut deskribatu: bisitatu eta miazkatu, zauriak sendatuz. Espazio bat sortu, beste batzuek esploratzeko, irakurtzeko eta muina beren kabuz aurkitzeko aukera izan dezaten. Sartu, eta gure begirada irauli dezakegu. Geure buruari (auto) birsorkuntza baimendu, eta sustatu dezakegu.

Florian Weigl